




MUGARIK GABE

2021 txostena





Garapenerako Lankidetza GKEa den Mugarik Gabetik herrien arteko globala eta interdependiente den garapenean sinisten dugu. Gure lana, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango den giza garapen integrala lortu nahian, tokia-tokiko hasten dugu mugetik haratago zabalduz.

ARABA

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA

Vicente Garamendi auzunea 5, behea
48006 Bilbo
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA

Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea
20009 Donostia
943 445 977 – gipuzkoa@mugarikgabe.org

www.mugarikgabe.org



Mugarik Gabe



@mugarikgabe



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0) Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_

AURKEZPENA

ALDAKETEN URTEA

2022 honetan Mugarik Gabek 35 urte beteko ditu; baina, aurten, 2021ean eta hainbeste urteren ostean (bazen garaia!!), gure irudia berritu dugu. Zuen gustukoa izatea espero dugu. Hala da, jakin badakigu ez garela azkarrenak aldaketak egiten; urte hauetan guztietan izaera kolektibo eta asanblearioari eusteak hori dakar, gauzak su motelean prestatzen baitira.

Oso pozik gaude Mugarik Gaberen bazkide eta hurbileko zaretenok aukeratzen lagundu diguzuen irudi berri honekin. Ikusgarriagoak izango gara; beti izan ditugun kolore gorria eta beltza mantendu ditugu, baina berdea eta morea ere gehitu dizkiogu; izan ere, ondo dakizuen bezala, ez dugu justizia soziala ulertzen ikuspegi feministatik eta ekologistatik ez bada, bizitzea egokitu zaigun testuinguru honetan horren ezinbestekoak diren begiradak, hain zuzen.

Nolanahi ere, berrikuntzak ez dira hor amaitzen: gure funtzionamendua eta barne-egitura pixka bat aldatu ditugu eta 2026a bitarte Plan Estrategiko berria dugu. Gure webgunean irakur dezakezue, «Gardentasuna» atalean.

Plan Estrategiko berri hori garatzeko Oreka Sarea aholkularitza-enpresaren laguntza izan dugu. Taldea espezializatuta dago aldaketak egin nahi dituzten erakundeei ezagutza berezitua eta laguntza ematen, genero perspektibarekin. Gure helburua azken urteetako lanari buruzko hausnarketa sakona egitea zen, plan berria modu parte-hartzaile eta asanblearioan sortzeko denbora hartuta; izan ere, hau izango baita gure lanaren gidari datozen sei urteetan.

Horretarako, talde eragile bat sortu genuen, Orekarekin batera prozesua diseinatu duena. 2020ko azarotik 2021eko abendura bitarte iraun zuen prozesuak eta lan pertsonala, taldekoa eta asanbladako tailerrak baliatu ditugu horretarako.

Prozesu sakon eta kolektiboek eraman gaituzte 2021ean berrikuntza horiek guztiak garatzera, oraindik ere normaltasunez lankidetzan aritzea zaila den garaian, bai pandemiagatik, bai eraso zuzenengatik eta baita Latinoamerikako erakunde bazkide askok bizi duten testuinguru sozial eta politikoarengatik.

Alderdi positiboan, badirudi kontinentean gizarte-mugimenduak indartzen doazela eta bestelako aukera politikoak boterea eskuratzen ari direla, eredu neoliberaletik gero eta urrunago daudenak eta a priori jendartearen gehiengoaren interesak eta eskubideak gehiago babesten dituztenak. Ikusiko dugu ea 2022an joera mantentzen den, besteak beste, Kolonbian, non komunitateetako liderrek bizitza arriskuan jartzen duten interes ekonomiko estraktibisten aurrean lurra defendatzeko. Hala egiaztatu du Mugarik Gabek parte hartu duen Kolonbiako giza eskubideak behatzeko euskal ordezkariak.

Horri guztiari buruz mintzatuko gara orrialde hauetan. Eskerrak eman nahi dizkizuegu bertan egoteagatik eta, edozein zalantza izatekotan edo ekarpenak edo iradokizunak egin nahi badituzue, gurekin harremanetan jartzeko eskatu nahi dizuegu, gure webgunea eta sare sozialak jarraitzera animatzearekin batera

#MugarikBerria


HEZKUNTZA

2021ean, feminismoen arlotik, indarkeria matxisten aurkako kanpainarekin jarraitu dugu, biktimen eta biziraun duten emakumeen memoria, egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatuz; erakundearen aldaketa feministarako lanean jarraitu dugu; baita hainbat ikastetxe eta gizarte-antolakunderi emandako prestakuntza eta aholkularitzekin ere.



Memoria Erakiz proposamen artistikoa, bai karparekin zein espazio itxietara egokitutako formatuan Ondarrun, Mungian, Sestaon, Santurtzin, Bergaran, Amurrian, Laudion; Bilboko San Frantzisko, Errekalde eta Deustu auzoetan; eta EHUKo Bizkaiko eta Arabako campusetan egon da.

‘Enredadas para vivir y resistir’ (Bizitzeko eta eusteko korapilatuak) izeneko ikerketa burutu dugu. Bertan, Euskal Herriko, Guatemalako, Kolonbiako eta El Salvadorreko biziraun duten emakumeen elkarten kontakizunak bildu ditugu, ahalduz indibidual eta kolektiboan egiten duten lana ezagutzeko eta ikusarazteko.



‘Indarkeria matxisten aurkako memoria lekuak’ izeneko argitalpena kaleratu dugu, memoria indarkeria matxisten aurka borrokatzeko tresna handia dela sinetsita. Argitalpenak ekarpena egin nahi dio mundu osoan zehar hainbat kolektibok memorializazio-prozesuen bidez emakumeok modu sistematikoan pairatzen dugun indarkeriari aurre egiteko egiten ari diren ahaleginari.

Medicus Mundi Arabarekin batera, gaztaroko indarkeria matxisten inguruko ‘Aske eta bizirik nahi gaitugu’ jardunaldiak antolatu ditugu EHUKo Lan Harreman eta Gizarte Langintza fakultatean.



HEZKUNTZA

Mahai-inguru bat egin dugu Gasteizko emakumeen etxean, zaintza erdigunean jartzen duten lan eta aktibismo ereduen inguruan. Bertan, Corporación Mujeres que Crean taldeak, Zemos98 kooperatibak eta Mugarik Gabek hartu dugu parte.



Hezkuntza formaleko aholkularitzari dagokionez, genero diagnostiko bat egin dugu Ondarroa BHIIn eta Tartanga LHIIko, Larburu LHIIko eta Fadura LHIIko irakasleei hezkidetzari buruzko formakuntza eman diegu.

Joera inkontzienteei eta antolakundeko aldaketari buruzko prestakuntza eman diogu Nazio Batuen Elikagaien Mundu Programari eta erakundeetako zaintzaren inguruan GGKEen Estatuko Koordinakundeari, Aragoiko Elkartasun Federazioari eta Zaragozako Munduko Medikuek elkarteari.

Bestalde, hainbat mahaitan hartu dugu parte eta zenbait hitzaldi eman ditugu, besteak beste, indarkeria matxistek emakumeen bizitzan duten eraginari buruz Errioxako Unibertsitatearen udako ikastaroetan, pobrezia feminizazioari buruz Deustuko Unibertsitatean, eta indarkeria matxistei aurre egiten dieten emakumeen aniztasunaren inguruan Consell de Mallorcak antolatutako jardunaldietan.

"Indarkeria matxisten aurkako borroka nazioarteko ikuspegi batetik" webinario bat antolatu dugu. Bertan, El Salvadorko Unibertsitatean eta erakunde feministetan egindako lanaren esperientzia partekatzen dugu.

Hemen, indarkeria matxistei nazioarteko ikuspegitik heltzeko ahaleginak sakontzen ditugu, El Salvadorko Unibertsitatean La Colectiva Feminista para el desarrollo local erakundeekin eta Euskadiko Eraldaketa Sozialerako eta eragin politikorako Hezkuntzako zenbait esperientziarekin artikulatzeko berariaz egindako lana ezagutuz.



LANKIDETZA

Kooperazio-lanaren ardatza tokiko bazkideei laguntzea da, intzidentzian, presioan eta mobilizazio politikoan, baita prestakuntza eskaintzea ere, emakumeen kontzientzia kritikoa indartzeko, eta iritzi publikoa sortzera bideratutako komunikazioa eta dibulgazioa sustatzeko.

Halaber, emakumeen mugimendua subjektu politiko gisa eraikitzen laguntzen dugu, baita emakume-taldearen antolakuntza prozesuak ere, sexu- eta ugalketa-eskubideen inguruko aldaketak lortzeko, abiapuntu hartuta emakumeen gorputzaren autonomia, emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka, lanaren banaketa sexuala eta sozializazio sexista prozesuak, gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunen oinarri diren neurrian.

Beste lan-ildo baten bidez, lehenetsuna ematen zaio Kolonbian eta Guatemalan giza eskubideen defendatzaileei babes integral feministarekin laguntzeari, eta emakumeek bakearen eraikuntzan parte hartzeko prozesuei.

AXAYACALT



Pandemiaren ondorioz aurrez aurreko jarduerak egiteko zailtasunak izan arren, Axayacalteko kideek hainbat ekintza egin dituzte indarkeria matxisten aurkako borrokan.

Emakumeentzako babes taldearen bidez, laguntza psikosoziala eman zaie indarkeria pairatzen duten emakumeei eta komunitateen defendatzaileen sarea indartzen jarraitu dute.

Axayacaltekin hainbat komunikabidetan hartu du parte eta kazetariekin prestakuntzak egin ditu, indarkeria mota hauek eta neskatoek jasaten dituzten sexu-abusuak ikusarazteko eta salatze konpromisoa har dezaten. Ildo horretan, dokumental bat ere egin dute: 'La otra cara del feminicidio'.

Agroekologiaren eremuan, familia-baratzeak eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ekimen txikiak bultzatzen jarraitu dute, elikadura-jasangarritasunerako iturri gisa, oinarritzko saskiaren prezioen igoeraren eta enplegu-alternatiba eskasiaren aurrean.

CORPORACIÓN MUJERES QUE CREAN COLOMBIA

2021ean Siempre Vivas prozesua babesten hasi ginen, aktibismo osasuntsu baten alde eta emakume defendatzaileen babes feminista osorako. Prozesu horrekin Mujeres que Crean taldeak urrats bat gehiago eman zuen zaintza lanak txertatu eta barne zein kanpo mailan zehar-lerro bihurtzeko.

Horrela bada, iraila amaieran Mugarik Gabeko bi kidek «CuiDÁNDOME, CuiDÁNDONOS entre nosotras; riesgos y acciones del cuidado para el activismo saludable» Hiri-Foroan hartu genuen parte. Bertan, IMD-ren, Latinoamerikako Osasun Sarearen eta gure esperientzietatik abiatuta, jakintzak eta ikaskuntzak partekatu, ezagutu eta eztabaidatu ahal izan genituen.



Horrez gain, 2021ean 'Violeta se empodera y en la redes no se enreda' (Violeta ahaldundzen da eta ez da sareetan nahaspilatzen) prozesuaren lehen fasea garatu genuen, gazteengan sare sozialetako indarkeria matxistak prebenitzera bideratutakoa.

2021ean ere, 'Ágora Virtual de las Mujeres para la prevención de las violencias en la ciudad de Medellín' (Medellin hirian indarkeriak prebenitzeko Emakumeen Agora Birtuala) hasi ginen ezartzen. Honen helburua da emakumeenganako indarkeria naturalizatzen eta legitimizatzen duten faktore soziokulturalak, politikoak eta juridikoak eraldatzea; izan ere, indarkeria bera sozialki zigortzea eragozten dute eta emakumeak Medellingo subjektu politiko gisa aitortzea oztopatzen dute.

Amaitzeko, 2022an ere emakume defendatzaileei babes feminista osoa ematen jarraituko dugu, bai eta gazteen arteko eta emakume zein neskeenganako indarkeriaren prebentzioan lanean. Era berean, babes feminista integralean sakontzeko Hiri-Foroan hartuko dugu parte.

LAS DIGNAS. EL SALVADOR

2021ean desberdinkeriak ezabatzeko eta jendarte inklusibo, bidezko eta jasangarri bat erdiesteko lanean jarraitu dugu.

Aurten, batez ere emakumeen gorputzaren autonomia aldarrikatu dugu. Gogoetarako espazioak ireki ditugu abortuaren erabateko despenalizazioaren inguruan eta hori babesteko legeak egitearen garrantziari eta premiari buruz hausnartzeko.

TEra berean, fokua jarri dugu homofobiaren, transfobiaren eta bifobiaren aurka, sexu-orientazio zein -ezaugarri eta genero-identitate zein -adierazpen anitzak dituzten pertsonen aurkako diskriminazioa salatuz. Horretarako kanpaina bat egin dugu, emakume lesbianak ikusarazteko eta euren aldarrikapen politiko-feministak eta esparru pribatu zein publikoko giza eskubideen arloko aldarrikapenak azalarazteko.



COLECTIVA FEMINISTA. EL SALVADOR

2021ean genero indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta integrala emateko zentroa eraikitzen amaitu dute. Bertan, indarkeria bizi duten emakumeei laguntza juridikoa emango zaie. Horrez gain, indarkeria egoeretan arreta instituzionala jasotzeko jarraibide-orri bat eta doako app bat sortu dituzte. Aplikazioa publikoa izango da eta emakumeek zein haurrek laguntza jaso dezaketen lekuen zerrenda bat izango du, dituzten eskubideak argi azalduta.

Bestalde, diplomatura bat antolatu dute gazte eta nerabeekin informazioa eta tresnak eskuratzeko euren harreman interpertsonalak hobetzeko, haurdunaldiak saihesteko, euren eskubide sexualak eta ugalketa eskubideak ezagutzeko eta indarkeriaren aurrean nerabeak babesteko bide-orria aitortzeko eta Babes Sistema martxan jartzeko. Honek, 'Diplomado en prevención de violencia de género, derechos sexuales, derechos reproductivos y Sistema de Protección para adolescentes' du izena (Genero-indarkeriaren prebentzioan, sexu-eskubideetan, ugalketa-eskubideetan eta nerabeentzako Babes-Sisteman diplomatura).

Tokiko Eragileen Gaitasunak Sendotzeko Diplomatura ('Diplomado para el Fortalecimiento de Capacidades de Actores Locales') ere egin zuten. Honen helburua zen El Salvadorreko bederatzi udalerrietako emakumeen eta gazteen tokiko antolakundeetan lidergo ezagutzak indartzea giza eskubideetan, genero berdintasunean, aniztasunean, gobernagarritasun demokratikoan eta euren eskubideen defentsarako politiketan eta legeetan.

COVID-19aren pandemiaren testuinguruan, honek emakumeen, nerabeen eta neskatoen sexu- eta ugalketa-osasunean izandako eragina aztertu zuten zenbait fororen bitartez. Horrela, osasun sistema publikoan sexu- eta ugalketa-osasunak duen egoera ezagutarazi zuten, oinarrizko zaintzen inguruan ikasi zuten eta arlo horretan sistema publikoan dauden erronka nagusiakaztertu zituzten, COVIDaren testuinguruan.

Bestalde, abortua despenalizatzearen aldeko herritar-elkartearekin batera lanean jarraitzen dute, eta aurten lankidetza berretsi dute, hitzarmen bat sinatuta.



HEZKUNTZA

BIZITZA JOKOAN

Aurten BIZITZA JOKOAN kanpaina jarri dugu martxan, Giza Eskubideen, Naturaren defentsaren eta bizi dugun larrialdi klimatikoaren arteko lotura azpimarratzeko. Agerian uzten ari gara hainbat eragilek, esaterako, enpresa transnazionalak, gobernuen babesarekin sistematikoki urratzen dituztela giza eskubideak eta ingurumen-eskubideak. Halaber, Giza Eskubideak eta naturarenak defendatzen dituzten pertsonen jazarpena eta zaugarritasuna salatu ditugu, pertsona hauek babesteko neurriak hartzearen beharra azpimarratzeaz gainera.



Urte honetan bertan, lantzen ditugun gaiak herritar gazteenengana zabaltzeko asmoz, Euskal Herriko hiru unibertsitate nagusiekin egindako lana handitu eta indartu dugu. Horrela, Bizitza Jokoan kanpainaren barruan, ikasle eta irakasleekin Giza Eskubideen eta Klima-krisiaren arteko harremanari eta Giza Eskubideen eta Ingurumen Eskubideen arteko loturari buruzko gogoetak eta proposamenak partekatu ditugu.

Kanpaina honen barruan Latinoamerikako eta Euskal Herriko antolakundeekin talde eragile bat ere osatu dugu, 2022ko martxoan egingo den Nazioarteko Kongresu bat antolatzeko. Esperientzia positiboa eta aberasgarria izan da eta lehen aldia da lan-eremu honetan lantalde egonkor bat osatzen dugula ozeanoaz bestaldeko antolakundeekin helburu komun bat lortzeko.

Kanpainaren barruan Iván Sanjinés (Bolivia), Edgar de León eta Lolita Chávez (Guatemala) etorri ziren.

.Gainera, 'Bizitza Jokoan. Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta' izeneko ikerketa burutu genuen, Icaria argitaletxeak eta Mugarik Gabek argitaratu berri dutena. Eredu neoliberalen enpresa transnazionalen duten botere izugarriak eta ahalik eta botere eta mozkin gehien lortzeko helburuarekin giza zein naturaren eskubideak bortxatzeko duten prestutasunak dakartzan arazo larriak lantzen dira ikerketan.



BIZITZA JASAGARRIAK ETA HERRI INDIGENAK

HEZKUNTZA

CALA EXTREMADURA TOPAKETAK

Extremadurako Cala Kolektiboak bultzatutako 'MudalMundo PatasArriba' prozesuaren barruan, topaketa batean parte hartu genuen Alburquerque. Bertan, hainbat erakunderekin hausnartu, partekatu eta proposamenak eraiki genituen Bizitzaren Jasangarritasunarekin lotutako hainbat gairen inguruan, ikuspegi desberdinetatik jorratuta: ekomendekotasuna, interdependentzia, planetaren eta inguruko pertsonen zaintza, etab. Eta hori egin genuen, barrura begira zein lan egiten dugun kolektibo eta publikoarekin egindako lana aztertuta.

HODEIA - SOFTWARE LIBREA



Gure kontsumo arduratsu eta ekologia politikarekin bat eginez, 2021 honetan ere aurrera egin dugu sistema eragile, programa eta tresna informatiko askeak eta kode irekiko erabileran, hala nola Linux, LibreOffice eta Nextcloud, pribatuen kaltetan, Microsoft, Google eta Dropbox, kasurako.

ALTERNATIBEN INGURUKO BIDEOAK

Aurten ere Alternatibak plazara! dokumentala zabaltzen jarraitu dugu. Gure ingurune hurbileko esperientzia interesgarriak erakusten ditu, bizitza-eredu jasangarriagotara igarotzen laguntzen dutenak.



FORMAKUNTZAK

.Prestakuntzei dagokienez, Asturiasko Lankidetzaren Agentziarekin formakuntza bat egin genuen herri indigenekin lankidetzak politikak lantzeko; Codeca-Guatemalak antolatutako beste batean hartu genuen parte, Latinoamerikako mugimendu soziopolitikoaren inguruan; baita Deustuko Unibertsitateak eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioak antolatutako batean ere, nazioarteko lankidetzaren krisiaren ingurukoa.

Era berean, TSE-Bolivian hartu genuen parte, Galdeketa Eskubidearen inguruan hausnartzeko. Herri indigenen eskubide bat da, baita eredu estraktibistaren aurrean eta klima-krisiaren aurrean lurraldeak eta planeta defendatzeko tresna ere.

LANKIDETZA

Prozesu eraldatzaileak bultzatzen jarraitzen dugu, bizitza erdigunean jarriko duen mundu bidezkoago eta, ingurumenaren aldetik, jasagarriago baterantz aurrera egiten lagunduko digutenak. Ekonomia sozial, solidario eta iraunkorraren ildotik, ekoizpen- eta kontsumo-ereduak zabaltzea eta praktikan jartzea bultzatzen dugu.

Arlo honetan ere, gure bazkideei babesa eman diegu herri indigenen eskubideen defentsan eta gauzatzean egiten duten lanean. Prestakuntza politikorako eta lidergoak indartzeko prozesuak babesten jarraitu dugu, funtsezkoak baitira indigenen mugimendua indartzeko, haien eskaerak artikulatzeko eta haien eskubide indibidual eta kolektiboak defendatzeko. Lurraldeko eskubidearen defentsan lan egin dugu, interes ekonomiko estraktibisten aurrean; batez ere, Guatemalan eta Kolonbian. Azkenik, Bolivian batez ere, komunikazio indigena landu dugu, eskubideak aldarrikatzeko, norberaren nortasuna eta kulturak errealizatzeko eta errealitatea ikuspegi indigenatik aztertzekeo tresna gisa.

ORGANIZACION INDÍGENA DE ANTIOQUIA



2021ean Bajo Cauca eta Norte de Urabá (Antioquía, Kolonbia) eskualdeetako herri senú-a indartzeko akonpainamenduan jarraitu dugu, Casa del Saber Marió Domicóren bitartez (Jakintzaren Etxea).

Horrekin batera, lurralde indigenek Antioquía departamentuan gero eta maizago bizi dituzten krisi humanitarioei aurre egiteko ekintzak jarri ditugu abian, legezko eta legez kanpoko eragile armatuek familiak setiatzen baitituzte.

Martxoan OIAko Kontseilaritza Nagusia ezagutu genuen, non Guzmán Caisamo Kontseilari Nagusi hautatu zuten. Mugarik Gaberen gertuko pertsona da, baina, batez ere, OIA osatzen duten herri guztiek aintzatetsia, Antioquiako mugimendu indigenarekin engaiatua egoteagatik. Zoritxarrez, COVID-19a dela-eta apirilean utzi gintuen eta hutsune handia geratu zen bere lekuan. Dolu hilabete nahasien ondoren, uztailean Kontseilari Nagusi berria izendatu zuten, senú herriko Willian Pertuz.

BIZITZA JASAGARRIAK ETA HERRI INDIGENAK

XOCHILT ACALT

Antolakunde hau 1990. urtean sortu zen, Larreynaga eta Telica udalerrietan tokiko garapen jasagarri eta bidezkoa lortzeko prozesu komunitarioak sustatzeko.

Urte honetan zehar, COVIDak jardueren garapenean eta martxan jarritako prozesuen gauzatze erritmoan eragina izan badu ere, emakumeen autonomia ekonomikoaren aldeko apustua egiten jarraitu dute, eurek kudeatutako produkzio-sistema iraunkorrak abian jarritz eta indartuz. Era berean, erakunde komunitarioekin elkarlanean jarraitu dute euren garapen komunitariorako prozesu propioaren buru izan daitezen, komunitateetan osasun, hezkuntza, genero eta ingurumen programak diseinatuz eta horiek martxan jarritz. Azkenik, indarkeriaren aurkako borroka-ildoan, emakumeen antolakundeen gaitasun indibidual eta kolektiboak indartu dituzte hauek pairatzen duten indarkeria salatzen. Antolakunde mistoetako gizonekin ere egin dute lan, euren maskulinitateari buruz eta emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidearen inguruan hausnar dezaten.

CRIC

Prozesu handi bat hasi dugu CRICen barruan, emakume indigenen prestakuntzarako zonetako eskolak indartu ditugu eta errezeta-liburu bat osatzen hasi gara COVIDak komunitateetan izandako ondorioen prebentziorako. Era berean, Indarkerien Behatokia jarri dugu martxan (Observatorio de las violencias). Bestalde, Guardia Indigena indartuz eta arreta berezia emakumeengan jarritz, Giza Eskubideen eta Bizitzaren programaren bidez bultzatzen dituzten prozesuan laguntza hasi gara.



2022an zehar bi bide horiek indartzen jarraituko dugu eta Caucako eskualdean indarkeria areagotzearen ondorioz sor daitezkeen beharrak gertutik jarraituko ditugu.

CEFREC

2020ko urriko hauteskundeetan ondoren, Boliviak estatu-kolpearen bidez urtebete lehenago galdutako demokrazia berreskuratu zuen.

Egoera berri honetan, CEFRECek eta nekazari indigenen ordezkariak Komunikazio Sistema Plurinazionalaren aldeko konpromisoa eta lana berrartu zuten. Hori kontuan hartuta estatu-kolpearen ondorioz baldintza oso zailak zituztela lanerako eta azken urteetan lortutako aurrerapen asko kolokan jarri zirela.



BIZITZA JASAGARRIAK ETA HERRI INDIGENAK

Horrela, neurri batean bertan behera geratutako erritmoak eta helburuak berreskuratu zituzten eta, ondorioz, lana biderkatu egin zen komunikazio-zentro eta talde guztietan.

Nazioartean ere suspertu zen lana, bertan behera geratutako bi Topaketa Kontinental berriz antolatu baitziren. Lehen, Latinoamerikan estatu plurinazional bat sortzearen inguruko eztabaida zabalarekin jarraitzeko izan zen; eta, bigarrena, komunikazio indigena komunitarioa herri indigenentzako, herrikoientzako eta emakumeentzako tresna gisa aztertzen duten prozesu kontinentalen ingurukoa.

UK'UXB'E

Uk'uxB'e-k antolakundeen arteko tokiko eta mundu mailako artikulazio-prozesuak bultzatzen jarraitu du herri mayab'-a defendatzeko. Horretarako, alde batetik, emakume maiek komunikazioan dituzten gaitasun tekniko eta politikoak indartu ditu, irrati komunitarioen eta sare sozialen bidez aukera izan dezaten erauzketa-enpresen aldetik — estatuko erakunde publikoen tolerantziarekin— pairatzen dituzten erasoak salatzeke; eta, beste aldetik, Consejo de Pueblos K'iche's kontseilua -CPK-, Prensa Comunitaria, Alcaldía Indígena de Santa Cruz del Quiché eta Uk'uxB'e beraren antolakuntza indartu ditu.



Eliteek eta erauzketa-industriek Guatemalako giza eskubideen defendatzaileak kriminalizatzeko eta judizializatzeko duten estrategia areagotu da lurraldea defendatzen duten komunitateetako sare eta antolakundeak politikoki eta antolamenduari dagokionez ahultzeko. Familia kriminalizatuek eta lurraldearen defentsan egindako lanagatik preso dauden pertsonak laguntza psikosoziala eta juridikoa jasotzen jarraitu dute.

Nabarmentzekoak dira Estor-en izandako erasoak. Uk'uxB'e-k nazioarteko komunitateari salatzen jarraitzeko deia luzatu zion eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Errelatore Bereziari esku har zezan eskatu zion.

ASECSA

Asecsak Guatemalako ipar-ekialdeko antolakunde komunitarioen gaitasun politikoak eta eraginari eta antolakuntzari dagozkionak indartzen jarraitu du; izan ere, lurralde horiek, naturaren aberastasunagatik, lehian daude nazio-mailako eta nazioarteko erauzketa-kapitalarekin. Era berean, giza eskubideen defendatzaileei emandako laguntza indartu du, aholkularitza juridikoa eta politikoa emanez, eta estraktibismoak sortutako eragina ikusaraziz.



COORDINADORA DE ONGDS

Mugarik Gaben Koordinakundeak jarraitzeko apustuari eusten diogu. Koordinakundea sendotzen ahalegintzen gara, baita euskal lankidetzaren mugimenduak mundu hobe eraikitzeko konpromisoetan sakondu dezan eragiten ere. Hori horrela, Intzidentzia Politikoko taldean lan handia egin dugu eta, horri esker, laster Eusko Jaurlaritzak Lankidetzari buruzko Euskal Legea onartuko du, oraingoa ordezteko. Argi dago, esparru honetan ideiak eta printzipioak indartu behar direla erabateko lankidetzaren publikoaren alde, zeinetan hemengo eta Hegoaldeko antolakunde sozialek protagonista izaten jarraituko dugun.

ELKARTASUNA ERALDATUZ

Plataforma honetan ere pandemiak apur bat geldiarazi gaitu, baina, besteetan bezala, antolakundeak arteko harreman estua mantentzen jarraituko dugu. Kasu honetan, Elkartasuna Eraldatuz plataformarekin dugun konpromisoan berresten gara, ezkerreko GKEak batzen dituelako. Ikuspegi honekin mundu interdependente batean lanerako eta harremanetarako eredu berriak eraikitzen jarraitzen dugu, non nazioarteko elkartasunak eta elkarlanak bere printzipio progresistak finkatu behar dituen. Gure ustez, Iparralde globalean nahitaezko eraldaketa sakona dugu egiteko hegoaldearekin konpromisoa hartuta.

HEGOAK

Plataforma hau lankidetzaren eremutik harago joateko apustua da. Mugarik Gaben beti defendatu dugu hori, eta ahal izan dugun neurrian, bete dugu. Horrela, beste erakunde, sindikatu eta alderdiekin koordinazio internazionalista eraiki dugu, iaz esaten genuen bezala, Latinoamerikako testuinguru aldakorren arabera aktibatzen dena. 2020an Latinoamerikako mugimendu eta antolakundeekin kanpaina bat egin genuen pandemiak kontinentean eragindako errealitatea azalarazteko. 2021ean, aldiz, egoera politikoa eta soziala jarraitu nahi izan dugu. Hauteskondeek, protesta masiboak eta eraldaketek markatutako urte bizia izan du Latinoamerikak, eta hori euskal jendarteari helarazten saiatu gara.

SAREAK ETA KORDINAKUNDEAK

COORDINADORA POR LOS DERECHOS DE LOS PUEBLOS INDÍGENAS (CODPI).

Espainiako Estatuan ere hasi dira lanean Nazioarteko Lankidetzaren Legea sortzeko lehen etapan. Eta hor oinarritu dugu 2021eko CODPIaren lana. Eragin politikorako lan handia egin dugu Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzian (AECID) eta Lankidetzaren Lege berria aztertzen ari zen azpibatzerdean. Herri indigenen egoera ikusarazteko eta datozen urteetan estatuko kooperazioa gidatuko duten dokumentuen oinarrietan islatu dadin egin dugu lan.

COORDINADORA LATINOAMERICANA DE CINE Y COMUNICACIÓN DE LOS PUEBLOS INDÍGENAS.

2020an AECIDren babes handia lortu genuen, Latinoamerikako lau herrialdetan COVID-19aren aurkako lan sakon eta zabala egin ahal izateko. Mexikon, Guatemalan, Perun eta Bolivian ikus-entzunezko eta irratiko kanpainak egin genituen herri indigenetan zabaltzeko pandemia zer den eta zelan aurre egin behar zaion. 2021ean zehar lan hori garatu ahal izan dugu beste ekintza batzuk albo batera utzi gabe, kontinentean zehar indigenen komunikazio prozesuak indartzea, esaterako.

MESA COLOMBIA

Aurten, Kolonbiako Mahaian Eusko Jaurlaritzak indigenen, nekazarien eta afrikanen antolakundeekin (ACIN, ANUC eta ACONC) duen hitzarmena ezartzen lagundu dugu. Era berean, laguntzen ari garen prozesuen mapeo bat egitea erabaki genuen. 2022an egingo dugu eta bakearen eraikuntzan eta Giza Eskubideak babestean esperientziak uztartzen jarraituko dugula espero dugu.

KOLEKTIBA COLOMBIA

Kolektiba Colombiaren bidez SOS Colombia Nazioarteko Misioan hartu dugu parte. Honen bitartez testigantzak eta informazioa bildu genituen apirilaren 28an hasitako Lanuzte Nazionalan (Paro Nacional) izandako giza eskubideen urraketei buruz.

Apirilaren 28an, Kolonbiako herria kalera atera zen bizi baldintza duinen alde, Iván Duqueren Gobernuak ezarri nahi zuen zerga-erreformaren aurka eta justizia sozialarekin bakean bizi den herri baten alde. Une horretatik aurrera, Nazio mailako Lanuzte mugagabea hasi zen, ordura arte ikusi gabea. Lehen hiru hilabeteetan kaleak eta protesten lehen lerroak hartu zituzten emakumeek eta gizon gazteek desagertuak, erailketak, torturak, bahiketak, jazarpenak eta mehatxuak jasan zituzten. Protestarako eskubidearen bidez bizimodu duina aldarrikatzen zuten pertsonak Kolonbiako Gobernuaren errepresio bortitza pairatu zuten.



Misioan parte hartu ondoren eta amaiera txostena argitaratu ostean, 2022an horren ondorioak aurkeztuko dizkiegu zenbait euskal instituziori.

Beste alde batetik, Kolonbiako Herriarekiko Elkartasunerako Estatuko Plataforman parte hartzen jarraitzen dugu. Bertan eragitearen bidez estatu mailako talde interparlamentario bat osatu dugu 2022ko hauteskunde legegile eta presidentzialak behatzeko.

EGIA ARGITZEKO BATZORDEA

Batzordeak erbestean egindako lana ere lagundu dugu, batez ere Kolonbiako giza eskubideen defentsaren esperientziatik, politikan eraginez eta giza eskubideen defendatzaileak babestuz. Horretarako, definitu egin ditugu CEVen lana ikusarazteko eta defendatzeko estrategiak, baita behin betiko txostenaren aurreko eta ondorengo intzidentzia-ibilbideak ere. Datorren urteari begira, euskal herritarrak sentsibilizatzeko argitalpenak eta ekintzak bultzatuko ditugu. Batzordearen azken txostena 2022ko ekainean argitaratuko dela aurreikusten dugu.

SAREAK ETA KORDINAKUNDEAK

EUSKAL HERRIAK KAPITALARI PLANTO

Plataforma honek hainbat ekintza bultzatu ditu. Esaterako, Black Friday kanpainaren inguruan areagotzen den kontsumismo kapitalistaren aurka elkarretaratzeak egin zituen, #primark eta #zara makrosaltokien ateetan.

Gainera, Enpresen eta Giza Eskubideen Euskal Zentroa sortzen jarraitu zuen.



SARETUZ

Saretuz Sarean parte hartzen jarraitu dugu, Donostian kontsumo kontziente eta arduratsua sustatzearen alde, aurten aisian eta kontsumoan zentraturik.

ZENTZUZ KONTSUMITU



ZENTZUZ SAREAK "Zaintzaile Migratuak, gure Iparraldeko Hegoaldea" ikerketaren emaitzak aurkeztu ditu. Enarak Kooperatibak dinamizatutako ikerketa ekintza parte-hartzailea izan da, eta Zaintza Kate Globalek Gasteizen duten arazoa aztertzen dute horren bidez.

TOKIKO KOORDINADORA FEMINISTAK

2021ean Bilbo Feminista Saretzen taldean parte hartzen jarraitu dugu, Bilboko talde feministen koordinakundean, alegia. Martxoaren 8ko eta Azaroaren 25eko mobilizazioak eta bestelako ekintzak antolatu dira horren bitartez.



EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

Aurten, erailketa matxista bakoitzaren aurrean protokoloa jarraitzeaz gain, Feminist asylum kanpaina babestu dugu, emakume, neska eta LGBTIQ+ pertsonen asilo-arrazoi espezifikoak benetan aitortzea eskatzen duena.

Indarkeria sexual eta sexistak –batez ere etxeko indarkeria, sexu-esplotazioa, ezkontza behartua, genitalen mutilazioa, salerosketa, legeria diskriminatzaileak, gaitzespena, seme-alabak kentzea– emakumeak, neskatoak eta LGBTIQ+ pertsonak euren herrialdeetatik ihes egitera eta Europan asiloa eskatzera bultzatzen dituzten arrazoi espezifikoak dira.

BALDINTZA GABEKO OINARRIZKO ERRENTAREN ALDEKO LHE

Durante el 2021 hemos estado apoyando con difusión de información la recogida de firmas para conseguir la creación de una renta incondicional, sobre la que ahora deberá pronunciarse el Parlamento



ERAGOZPEN FISKALERAKO KANPAINA

Eragozpen Fiskalerako kanpaina honako antolakunde hauek hartzen dugu parte: Argitan, Finantza Etikoak Euskadi elkarte, Bake-Ekintza Antimilitarista Taldea, CEAR, Bilboko CNT, Ekologistak Martxan, ESK, Kakitzat, KEM-MOC, Mugarik Gabe, Mundubat, Setem Hego Haizea, REAS, Medicus Mundi Araba, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Posada de los Abrazos.



INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES DE PYMES SIN FINES LUCRATIVOS EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

A la Asamblea General de la Asociación Mugarik Gabe, por encargo de la Junta Directiva:

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos adjuntas de Mugarik Gabe, que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2020, la cuenta de pérdidas y ganancias, y la memoria (todos ellos en formato PYMES sin fines lucrativos) correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Asociación a 31 de diciembre de 2020, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2 de la memoria de PYMES sin fines lucrativos) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos de nuestro informe.

Somos independientes de la Asociación de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de



las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstos, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

- Subvenciones, donaciones y legados imputados al excedente del ejercicio

Descripción:

La Entidad recibe subvenciones para diversos proyectos de cooperación de distintas entidades públicas y privadas.

De acuerdo con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y tal y como se indica en la nota 4 de la memoria de PYMES sin fines lucrativos, las subvenciones, donaciones y legados no reintegrables se contabilizan inicialmente como ingresos directamente imputados al patrimonio neto, reconociéndose en la cuenta de pérdidas y ganancias como ingresos sobre una base sistemática y racional de forma correlacionada con los gastos derivados de la subvención, donación o legado.

Hemos considerado que la imputación a ingresos de las citadas ayudas supone un riesgo de nuestra auditoría, al tratarse de importes significativos para la Asociación, en tanto que la determinación del excedente del ejercicio depende en gran medida de este aspecto.

Nuestra respuesta:

Hemos conocido los controles que la Asociación tiene diseñados y realizado pruebas analíticas y de detalle para asegurarnos de que la imputación a ingresos de las distintas ayudas recibidas sea coherente y proporcional con el grado de ejecución durante el ejercicio de los gastos de cada expediente de ayuda.

Finalmente. Hemos evaluado si la información revelada en las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos cumple con los requerimientos del marco normativo de información financiera aplicable.

Responsabilidad de la Junta Directiva en relación con las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos

La Junta Directiva es responsable de formular las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Asociación, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos, la Junta Directiva es responsable de la valoración de la capacidad de la Asociación para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con la empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si la Junta Directiva tienen intención de liquidar la Asociación o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.



Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de auditoría vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos.

En el Anexo I de este informe de auditoría se incluye una descripción más detallada de nuestras responsabilidades en relación con la auditoría de las cuentas anuales de PYMES sin fines lucrativos. Esta descripción que se encuentra en la página 5 es parte integrante de nuestro informe de auditoría.

MAZARREDO AUDITORES, S.L.

Inscrita en el Registro Oficial de Auditoría de Cuentas con el N.º S-1643



JORGE CABIA AGUSTÍN

Inscrito en el Registro Oficial de Auditoría de Cuentas con el N.º 20589

c/ San Vicente 8, Edificio Albia I, 10º, 48001 Bilbao (Bizkaia)

Bilbao, 14 de junio de 2021

MUGARIK GABE

BALANCE DE PYMESFLAL CIERRE DEL EJERCICIO 2020 Y 2019

ACTIVO		Nota	2020	2019
A) ACTIVO NO CORRIENTE				
III.	Inmovilizado material	(5)	46.192,67	58.533,12
IV.	Inversiones inmobiliarias	(5)	4.773,87	6.216,30
VI.	Inversiones financieras a largo plazo	(8)	151.150,00	11.150,00
B) ACTIVO CORRIENTE				
II.	Usuarios y otros deudores de la actividad propia	(6)	5.631,72	42.889,43
III.	Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar		2.654.644,35	2.486.030,86
V.	Inversiones financieras a corto plazo	(8)	355.000,00	570.000,00
VI.	Periodificaciones a corto plazo		472,73	392,68
VII.	Efectivo y otros activos líquidos equivalentes		1.344.355,19	1.552.597,83
TG. TOTAL ACTIVO			4.562.220,53	4.727.810,22

PATRIMONIO NETO Y PASIVO				
Nota	2020	2019		
A) PATRIMONIO NETO				
A-1) Fondos propios				
I. Fondo Social	991.734,88	1.158.004,42		
1. Fondo Social	25.280,53	25.280,53		
II. Reservas	25.280,53	25.280,53		
IV. Excedente del ejercicio	1.131.693,90	1.138.029,31		
	(165.239,55)	(5.305,42)		
A-2) Subvenciones, donaciones y legados recibidos	3.544.369,12	3.492.750,83		
B) PASIVO NO CORRIENTE				
II. Deudas a largo plazo	300,00	300,00		
3. Otras deudas a largo plazo	300,00	300,00		
C) PASIVO CORRIENTE				
II. Deudas a corto plazo	302,47	230,72		
1. Deudas con entidades de crédito	61,90	230,72		
3. Otras deudas a corto plazo	240,57	-		
IV. Beneficiarios - Acreedores	-	(0,23)		
V. Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar	25.514,06	76.524,48		
2. Otros Acreedores	25.514,06	76.524,48		
TG. TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO			4.562.220,53	4.727.810,22



MUGARIK GABE

CUENTA DE RESULTADOS DE PYMESFL CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2020 Y 2019

		Nota	2020	2019
A EXCEDENTE DEL EJERCICIO				
1.	Ingresos de la actividad propia	(12)	48.166,22	48.886,75
	a) Cuotas de asociados y afiliados		23.847,34	25.039,84
	c) Ingresos de promociones, patrocinadores y colaboraciones		4.800,00	6.186,66
	d) Subvenciones, donaciones y legados imputados a excedente del ejercicio		19.518,88	17.660,25
2.	Ventas y otros ingresos ordinarios de la actividad mercantil		9.682,06	7.148,95
	a) Ventas		61,00	613,00
	b) Prestaciones de servicios		9.621,06	6.535,95
3.	Gastos por ayudas y otros		(1.803.551,45)	(1.247.819,17)
	a) Ayudas monetarias	(12)	(1.802.825,41)	(1.247.022,89)
	d) Reintegro de subvenciones, donaciones y legados		(726,04)	(796,28)
7.	Otros ingresos de la actividad		13.751,46	30.019,17
8.	Gastos de personal		(470.191,44)	(514.867,63)
9.	Otros gastos de la actividad		(114.455,21)	(298.307,28)
10.	Amortización del inmovilizado	(5)	(15.973,67)	(16.035,17)
11.	Subvenciones, donaciones y legados de capital traspasados al excedente del ejercicio	(13)	2.166.869,62	1.983.235,08
14.	Otros resultados	(12)	(394,78)	1.476,43
A.1) EXCEDENTE DE LA ACTIVIDAD (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13+14)			(166.097,19)	(6.262,87)
15.	Ingresos financieros		858,00	1.128,89
16.	Gastos financieros		-	(15,45)
18.	Diferencias de cambio		(0,36)	(155,99)
A.2) EXCEDENTE DE LAS OPERACIONES FINANCIERAS (14+15+16+17+18+19)			857,64	957,45
A.3) EXCEDENTE ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)			(165.239,55)	(5.305,42)
A.4) Variación del patrimonio neto reconocida en el excedente del ejercicio (A.3+19)			(165.239,55)	(5.305,42)
B) Ingresos y gastos imputados directamente al patrimonio neto				
1.	Subvenciones recibidas		2.260.095,84	2.408.001,87
2.	Donaciones y legados recibidos			
3.	Otros ingresos y gastos			
4.	Efecto impositivo			
B.1) Variación de patrimonio neto por ingresos y gastos reconocidos directamente en el patrimonio neto (1+2+3+4)			2.260.095,84	2.408.001,87
C) Reclasificaciones al excento del ejercicio				
1.	Subvenciones recibidas		(2.208.477,55)	(2.097.394,90)
2.	Donaciones y legados recibidos			
3.	Otros ingresos y gastos			
4.	Efecto impositivo			
C.1) Variación de patrimonio neto por reclasificaciones al excedente del ejercicio (1+2+3+4)			(2.208.477,55)	(2.097.394,90)
D) Variaciones de patrimonio neto por ingresos y gastos imputados directamente en el patrimonio neto (B.1+C.1)			51.618,29	310.606,97
E) Ajustes por cambios de criterio				
F) Ajustes por errores				
G) Variaciones en la dotación fundacional				
H) Otras variaciones				
I) RESULTADO TOTAL, VARIACIÓN DEL PATRIMONIO NETO EN EL EJERCICIO (A.4+D+E+F+G+H)			(113.621,26)	305.301,55



2021EAN ONARTUTAKO PROIEKTUAK

ERAKUNDE FINANTZATZAILEA	BAZKIDEA / MUGARIK GABE	HERRIALDEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	KOSTUA GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
0,7 Eusko Jaurlaritza eta Osakidetza	XOCHILT ACALT	Nikaragua	Promoviendo el acceso y la gestión sostenible y equitativa del agua potable de la comunidad de Portobanco	76.827,42	49.933,19
Basauriko Udala	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Reflexionar sobre violencias machistas para la acción	11.066,00	8.366,00
Basauriko Udala	MUJERES QUE CREAN	Kolonia	Violeta se empodera y en las redes no se enreda	41.563,38	33.249,02
Debako Udala	EMAKUMEEN SEKTOREA	Guatemala	Fortalecer la capacidad de articulación y de propuestas políticas de las mujeres mayas y mestizas para el Buen Vivir en Huehuetenango	8.260,99	6.556,34
Donostiako Udala	AXAYACATL	Nikaragua	Fortaleciendo la autonomía ideológica y económica de las mujeres del Departamento de Masaya para la transformación de la cultura machista y patriarcal, Fase II	73.623,86	49.680,03
Donostiako Udala	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Bizitza Jasangarriak lortzeko hezkuntza eta eragin politikoa Donostian	26.060,92	19.804,91
Gasteizko Udala	COLECTIVA FEMINISTA	El Salvador	Ciudades inclusivas y libres de violencia para las mujeres	129.156,39	92.362,05
Gasteizko Udala	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Nos cuidamos y defendemos el mundo	5.900,00	5.000,00
Gasteizko Udala	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Violencias machistas en la juventud	12.500,00	10.500,00
Gasteizko Udala	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Zentzuz 2021-2022	8.310,00	8.310,00
Gasteizko Udala	MUJERES QUE CREAN	Kolonia	Siempre Vivas: mujeres empoderadas por un activismo saludable	111.961,73	94.401,28
Getxoko Udala	CEFREC	Bolivia	Fortaleciendo capacidades de incidencia en la Amazonia de Bolivia para la plena difusión y vigencia de derechos y lucha contra todo tipo de violencias machistas	41.208,09	28.700,00
Irungo Udala	XOCHILT ACALT	Nikaragua	Contribución a la reducción de las desigualdades de género en el desarrollo rural	33.569,44	11.990,44
Arabako Foru Aldundia	CRIC	Kolonia	Tejiendo redes por la convivencia sin violencia contra las mujeres en los pueblos indígenas del Cauca	187.509,48	150.000,00
Arabako Foru Aldundia	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Tipi Tapa Bagoaz! kanpaina Hacia Vidas SOSTenibles (fase IV) "Alternativas para la sostenibilidad de la vida en tiempos de pandemia y de crisis"	16.150,49	12.320,39
Arabako Foru Aldundia	MUGARIK GABE	Euskal Herria		12.500,00	10.000,00

Arabako Foru Aldundia	OIA	Kolonia	Ayuda de emergencia alimentaria a comunidades desplazadas y confinadas en Bajo Cauca, Antioquia	30.000,00	30.000,00
Bizkaiko Foru Aldundia	CEFREC	Bolivia	Fortaleciendo el Sistema Plurinacional Comunicación mediante formación temática comunicacional e incidencia desde los derechos y equidad de género para Vivir Bien	150.000,00	120.000,00
Bizkaiko Foru Aldundia	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Propuestas de sobrevivientes al derecho a la reparación	10.000,00	9.000,00
Bizkaiko Foru Aldundia	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Bizitza Jokoa Defensa de Derechos Humanos y de la Naturaleza y crisis climática	56.373,85	44.998,85
Gipuzkoako Foru Aldundia	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Komunikazioa, eragin politiko eta soziala Gipuzkoan Bizitza Jasangarriak lortzeko	62.840,17	49.991,37
Gipuzkoako Foru Aldundia	MUJERES QUE CREAN	Kolonia	Ágora Virtual de las Mujeres para la prevención de violencias en la ciudad de Medellín	100.000,00	100.000,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	OIA	Kolonia	Ayuda humanitaria para comunidades indígenas de Murindó, Arboletes y Caucaia afectadas por el conflicto armado.	40.465,43	39.999,82
Emakunde	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Iniciativas de memoria de las mujeres víctimas y sobrevivientes de violencias machistas	6.600,00	6.600,00
Eusko Jauriaritza	COLECTIVA FEMINISTA	El Salvador	Fortalecimiento de capacidades de mujeres y jóvenes organizados afectados especialmente por la pandemia COVID-19	705.511,66	561.550,54
Eusko Jauriaritza	MUGARIK GABE	Euskal Herria	Elaboración del Plan de Acción Estratégico pro-equidad de Género.	16.633,00	14.480,19
Eusko Jauriaritza	UKUXBE	Guatemala	Mujeres y Juventud consolidando procesos comunitarios para el Buen Vivir	750.776,12	599.898,81
Eusko Jauriaritza	XOCHILT ACALT	Nikaragua	Fortaleciendo el liderazgo comunitario de las mujeres en el desarrollo rural, equitativo y sostenible	749.983,01	599.084,13
				3.475.351,43	2.766.777,36



auditoria soziala
REAS EUSKADI

Auditoria Soziala 2021

MUGARIK GABE ORGANIZACION NO GUBERNAMENTAL DE COOPERACION AL DESARROLLO



NIF: **G48263446**

Dirección: **GRUPO VICENTE GARAMENDI 5, LONJA**


Código postal: **48006**

Localidad: **Bilbao**

Forma jurídica: **Asociación**

Sector: **Difusión y sensibilización**

Economía



Política de lucro

En caso de haber tenido excedentes económicos, cómo se reparten?

% repartido a empresas o personas socias	0
% dedicado a compensación de pérdidas	0
% dedicado a la reserva	0
Educación/formación interna	0
Causas sociales y solidarias	0
Inversiones en las entidades de finanzas ética	0
Reserva obligatoria/voluntaria	0
Otras	0

Política de compras

% de compras a entidades de la Economía Social (ni mercado Social ni REAS)



Mercado Social

% de compras a proveedores del Mercado Social / REAS



Transparencia

Los salarios y las demás remuneraciones ¿son públicos para las personas trabajadoras? ✓

¿Habeis publicado en la web y/o redes sociales los datos/resultados de la Auditoria Social del último ejercicio?

Lo hemos publicado/difundido tanto hacia afuera como hacia las personas de la entidad.

Información pública disponible:

Balance económico / presupuesto

Plan de trabajo anual / memoria

Normas y procedimientos internos

Código ético / estatutos

Cumplimiento: 83%

BATU ZAITEZ MUGARIK GABERA!!

**PERTSONA ETA KOLEKTIBO ASKOK BABESTEN GAITUZTE ETA OSATZEN
DUTE MUGARIK GABE.**

**ZU ERE IDENTIFIKATUTA SENTITZEN BAZARA EGITEN DUGUN LANAREKIN
EKONOMIKOKI BABESTERA GONBIDATZEN ZAITUGU**



**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ALDIZKAKO KUOTAREN
BIDEZ, KOPURUA TXIKIA IZAN ARREN**

Mundu bidezkoagoa, feministagoa eta iraunkorragoa
eraikitzeko eguneroko lanean lagunduko gaituzu.



**BABES GAITZAZU DOHAINTZA PUNTUAL
BATEN BIDEZ**

Proiektu zehatz bat babesteko.

